

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK:**

- a. Gure enpresak, hornitzaile edo kolaboratzaile **(irakasleak) sare bat** beharko du, bestela, ez litzateke posiblea izango gure enpresaren helburua betetzea eta beraz, enpresa arrakastatsua izatea.
- b. Gainera, app-a edota webgunea burutzeko **informatiko sare** bat beharko dugu.
- c. Gure app-ean produktuak **salgai eskainiko duten erakunde** edo banakakoak ere beharko ditugu.
- d. Enpresa hazi ezkeror iragarkiak eskegiko dituzten enpresak gehitu beharko dizkiegu web eta app-ari.

## **IRAKASLEAK:**

Hauek, kolaboratzaileak izango dira; bere buruari prezio bat ipiniko diote eta hori ordaintzen duen ikasleari klaseak emango dizkiote. Irakasleak, profil bat egin beharko du zein arlo irakasteko gai den eta zein titulu edo curriculum duen adieraziz.

## **INFORMATIKOAK:**

Informatikoeak garrantzi handia izango dute **aplikazioa sortzean eta irakasle eta ikasleen profilak aztertu, prozesatu eta txertatzean**. Izan ere, hauek izango dira gure aplikazio edota webaren jaun eta jabeak. Gainera, filtro lana egin beharko dute, izan ere, ez da onargarria profiletan lekuz kanpoko konturen bat idatzita egotea edota ez dagokion produktu bat saltzea. Gainera, webgunea eta aplikazioa ikusgarria eta topatzeko erraza egin beharko lukete bestela ez litzatekeelako oso arrakastatsua izango proiektua. Irakasle partikularrak edota errefortzu klaseak edo horrelako irakaskuntza termino abstraktuak bilatzearekin nahiko izan beharko litzateke.

## **IRAGARLE ETA SALTZAILEAK:**

Enpresa hauek funtsezkoak dira gure enpresaren biziraupenerako. Hasiera baten, garrantzi handiagoa izango dute saltzaileek izan ere, errendimendu ekonomiko hobea ematen du produktuak saldu eta horien ehuneko bat geureganatzeak enpresa txiki bat garen bitartean. Baina webgunearen bisitak eta app-aren deskargak areagotzen direnean, aurretik aipatutako metodoa eta iragarkiak erabiliko ditugu, bata zein bestea konbinatuz, diru askoz gehiago irabaziko dugulako.



